Iruñeko Udalak 1998. urteaz geroztik jendaurrean jartzen du Arte Garaikidearen bilduma. 600dik gora artelan, aukera-sorta adierazkor garrantzitsua eta askotarikoa, zeina lehen mailako erreferentea baita azken hamarkadetako arte-manifestazioen bilakaera ulertzeko.

Kasu honetan, esku artean daukazu katalogo honek zehatz aztertzen ditu Hainbeste gauzak hainbeste esan zidaten erakusketaren nondik norakoak. Bildumaren 38 obrak osatzen dute erakusketa, non ikusgai jarriko baitira tankera ezberdineko lan diridirtsu batzuk (argazkiak, pinturak, eskulturak, bideoak...), izendatzaile komuna daukatenak: benetako objektuak adierazpide gisa duen balioa.

Aurreko erakusketetan bezala, ohorea eta erantzukizuna da Iruñeko Udalarentzat halako erakusketa bat jartzea iruindarren eskura. Lehenengo eta behin, aukera paregabea delako Udalaren ondare artistikoaren eta obra garaikideen balioaren berri emateko. Eta bigarrenik, horrela sustatzen delako, ahal den neurrian behintzat, irizpide artistikoa herritarren artean.

Iruñeko Alkatea naizen aldetik, nahi nuke halako erakusketak eta gure artista garaikideen lana ezagutzera emateko egiten diren ekimenak oro ongi hartuak izan daitezen, eta iruindarren babesa eta partaidetza eskuratu ditzaten. Pintura, eskultura edo argazkigintza diziplina artistiko irekiak dira, halako dimentsio berdingabea hartzen dutenak, pertsona batek mihise zuri bati aurre egiten dionetik edo argazki kamera bat hartzen duenetik. Baina, batez ere, adierazteko erak dira, sortzeko bideak, gure gizartea aberatsago, osotuago eta irekiago bilakatzen dutenak.

i

Enrique Maya
Iruñeko Alkatea

Hainbeste gauzak hainbeste esan zidaten Txaro Fontalba

1 Oraingo honetan aldi berean artista eta komisarioa naizelako, agian, objektuen *object trouvé* gisara ekiten diot Iruñeko Udalaren Arte Garaikidearen Bildumari, objektu-multzo itxi gisara, non direnak baitira, eta horietatik har baitituzaket abiapuntutzat, eragiteko tokizat, jarduteko tokizat.

Umberto Eco-k zerrenda "praktikoak" (benetakoak eta enpirikoak) eta zerrenda "poetikoak" ezberdintzen ditu.¹ Museo baten inbentarioa edo arte-bilduma baten zerrenda, hau da, eskuartearen darabildan xedea, esaterako, zerrenda praktikoaren adibidea da. Izan ere, toki jakin batean dauden objektu-multzo batez ari da, eta toki hori, ezinbestean, mugatua da, baina irekia, bilduma oro beti egin daitekeelako pieza berriekin handitu edo aberastu.

2 Bildumari beha, osatzen duten objektuei buruz egiten dut hausnarketa, eta horiek galdetzen didate: Zer da bilduma bat? Zer ote da bildumazaletasuna? Bilduma batean, elkarrekin doazen objektu-multzoan -ez al dago objektu bakarreko bildumarik?-, bada lotura bat, harreman bat, multzoari batasuna eta koherentzia ematen dion forma bat. Nolatan identifikatu, baina, batasun-irizpide hori?

"Bildumazaletasuna hiru zutabe nagusitan oinarritzen da: merkatuaren eskuragarritasuna, eroslearen erosteko ahalmena eta eroslearen gustua. Eta hiru irizpide nagusik zedarritzen dute: lehenengo eta behin, bilduma bat ez da koadro-multzo bat, eduki behar baitu halako zentzu bat, halako ordena edo dikzioa, barne-koherentziari eusten diona. Bigarrenik, bilduma orok egilea konnotatzen du, hari dagokiolako, hau da, egileaz ari delako. Eta hirugarrenik, iritzi-sortzaile jardun behar du beti. Kontu benetan zaila eta kitzikagarria azken hori, denboraren joanak bakarrik egiaztatzen ahal duena".²

Ez dago bildumarik bildumagilerik gabe. Bildumaren kontzeptuak norbait dakar berekin, dakarrenez, sortu duen norbait, bat-bateko edo zorizko ordenamendua baztertu egiten duena. Bildumagilea bildumaren atzean dagoen funtzioa da -edo fikzioa?-, bildumari halako antolamendua, halako sailkapena -agerian edo ezkutuan-, ematen diona. Bildumagilea bildumaren xedea da, ez alderantziz.³ Bildumazaletasunak, psikismoaren ekoizpen orok bezala, subjektuaren nahietara bidaltzen gaitu. Sigmund

Freudek "altxorren ganbara" deitu zion inkontzienteari, bitxikerien eta gauza miragarrien kabinetea baitiltzan. Bildumagilea bilduma deritzogun objektuen multzoari dagokion subjektua dugu. "Bilduma oro, definizioz, pribatua da".⁴

3 Hona hemen Santiago Alba Ricoren gogoeta bat zerrenda praktikoei buruz: "Munduko aita-ama guztiek dakite Txanogorritxoaren ipuinean *saskiaren edukia* eta ohean etzanda dagoelarik bere benetako izaera ezkutatu ezin duen otsoaren *gorputz-atalak* banan-banan aipatzea direla, lehenengo eta behin, haurraren arreta finkatu eta ipuinaren amaiera arte eusteko bidea ematen diena, ulergaitz zaien argumentuaz harago eta pertsonaiak psikologikoki identifikatzen hasi baino lehen. Hau da, ipuinaren indar guztiak euskarri ditu hala *erosketa-zerrenda* xede hartuta sailkapen enpirikoa egiten duen lehen lantxo hori, zeinari bertsio batetik bestera haurrak bere kabuz jaki ahogozagarrri gehiago eranstean baitizkio, nola oinarritzko *sailkapen anatomikoa*, zeinak basapiztiaren ezaugarri nabarmentan banan-banan aipatzera eta biziki irudikatzen behartzen baititu haurrak. Obra bat ganorazkoa izanen bada, hau da, kultur ekoizpen gisara autoritatea handitzea merezi eta bere "munduari" eutsiko badio, lehenengo eta behin enpirismoaren irakasgai erraz baina bazter ezin utzizkoa bilduko du baldintza nagusitzat".⁵

Haurrak, hartara, zerrenda praktikoa zerrenda poetikoa bihurtuko du: batzea, gehitzea eta handitzea (potentzialki infinituak) oinarri izanen dira alderdi poetikoarentzat. Zerrenda batek infinituak iradokitzen du. Banan-banan aipatze horretan aipatutakoan ez ezik soinuak, letanian, enuntziatio-erritmoan, keinuetan nahiz ahotsaren fisikotasunean jartzen dugu arreta. Hortaz, erreferenteak eta esanahiak oinarri dituen zerrenda batetik zerrenda poetiko batera egiten dugu jauzi, non soinuak, balore fonetikoak, hau da, adierazleak, jomuga diren. Eta ez al da, baita ere, kontrolari eta zenbakiari ihes egiten dien horri eusteko modu bat?

"Kentzea gehitzea baino zailagoa da", dio Alba Ricok. "Bortxatu egin behar da desagertze naturalaren prozesua gauzak berriz ere ager daitezen".⁶ Asimilazio-prozesua aldatu beharra dago gauzak ezberdin ager daitezen. Bilduman zulo bat egin behar da, moztu egin behar da bilduma, zerrenda poetiko bat erazteko.

Hautaketa egitea dugu koska, berreskuratzeke, jaregiteko, bestela biltzeko, beste modu batez elkar eragiteko eta esanahi berriak agerrarazteko.

Zerrenda praktikoa batetik, duen izaera duenetik, zerrenda poetikoa bat erazteke, horra nire eginkizuna. Ebaki egin behar dut, hustu, moztu, laburtu, murriztu, gutxiagotu, inausi, laburbildu, txikitu, zedarritu, mugatu, ezabatu, puskatu, zatitu, erdibitu, hautsi, apurtu, atera, erazi, gutxitu, bereizi, kendu, aldentu, beheratu, gutxitu, desokupatu, ttipitu, laxatu, soildu, pikatu, zatikatu, anputatu, arraildu, porrokatu, gillotinat. Eta abar.

4 Bildumagilea artelanen jabea da; komisarioa, erabaki edo hautatzen duena, eta artista, sortu edo birsortzen duena. Ohiko leku horiek mugitu egiten dira: "Arte-bildumagileak hautatzen ditu koadroak, eta horman zintzilikatzen ditu, hau da, "bilduma bat pintatzen du". Duchamp-en zorioneko aforismo horren arabera bildumagilea bi aldiz artista da.

Komisarioen lanak ez al luke berekin ekarri beharko halako jarrera pertsonala -subjektiboa eta selektiboa ezinbestez- egileei eta obrei buruz erabakiak hartzean, eta halako gizarte-engaiamendua, horiek besteekin partekatzeke? Eta ez al luke iritzi publikoa sortuko, halako ikuspegi berritzailea eskaintzean eta adieraztean edo bildumaren gainean ezkutuko edo ustekabeko zentzuak agerian uztean? "Barnealdea artearen babes da. Bildumagilea barnearen benetako maizterra da. Gauzak laudatzea dauka eginkizun."⁷

Esan daiteke artista oro bildumagilea ere badela? Nago ez dagoela objekturik gordetzen ez duen artistarik. Artistak begirada poetikoa eranstean die munduari lotzen zaizkion gauzei. Historia eta iraganeko artelanei ere behatzen die objektuak deszifratu, elkartu, antzaldatu eta berea den beste ildo baten arabera birkokatzeke, filiazio eta zentzu berriak aurkituz. Bildumak egitea objektuen mundu materialaren gainean jardutea da.

Artistaren jomuga ez da bilduma bat osatzea, edo serie bat agortzea, baizik eta objektua puskatzea, objektuari hutsune bat, hoben bat egitea, hutsuneari alternatiba izateko arrazoi bat ematea, auzotasunak eta elkartzeko ezberdinak sortzea. Artistaren xedea ez da objektuak gordetzea, ezpada arriskuan edo jokoan jartzea, bortxatzea.

Interesgarria litzateke artisten bilduma-nahia eta egungo praktika artistikoak arakatzea, baina testu honen gogoetatik haragoko kontua da. Adibide batzuk baino ez. Joan Fontcubertak komisario dihardu *bilduma-obra* izenburua duen erakusketa batean, non bildumari artelan gisara ekiten baitzaio. "Tesi-erakusketa batzuk berez obratzat jotzen diren bezala, pieza bakoitzaren fetixismoa gainditu nahi dut obren arteko elkarrizketa eta elkarreaginaren kontzeptuan arakatzeko", dio artistak.⁸

*Bazar Arroyo*⁹ erakusketak Eduardo Arroyo artista-bildumagilea agertzen digu. Objektu, eskultura, merkataritza-enkargu, bukatu gabeko proiektuen zirriborro eta sortze-prozesuan erabilitako material multzoak agerian uzten du artistaren imaginarioaren aniztasuna eta nahasteko zein inkongruente agertzeko zaletasuna.

Un cosmos da Rosemarie Trockelen erakusketa baten izenburua. "Erakusketa elkarreaginaren multzo gisa, eraikitzen ari den obra baten gisa"¹⁰. Teknika eta material era askotakoak ez ezik -zirriborroak, marrazketak, zeramikak, artilezko koadroak, ready made-ak, objektu esku hartutakoak, instalazioak, eskulturak, bideoak, pinturak, diapositibak eta instalazioak- hurbileko artisten obrak eta naturalista gutxi ezagunek aztertutako natura-objektu batzuk agertzen dizkigu artistak. "Era askotako identitateen erakusketa bat", konstelazio bat.

Umberto Eco "ikusizko abarrak" aipatzen ditu ondokoaz ari denean: "koadro batek gauzak ager ditzake edo, bestela, *eta abar* bat iradoki, onartuko balu bezala markoaren mugek behartzen dutela berealdiko abarra isiltzera".¹¹ Konstelazio-obra, kosmos-obra, bilduma-obra ikusizko eta abar poetikoak liriateke. "Els etcéteres" Joan Brossaren, beste artista-bildumagile baten, obra multzoaren izenburua da. *Hainbeste gauzak hainbeste esan zidaten* erakusketak bertan agertzen ez diren *eta abarrak* iradokitzen ditu, bazter utzitakoa, ez dauden objektuak, ezin aurkituzkoak barruan sartzeko.

"A Love for the Thing
On things that can
activate the magic of the social,
talk to all creatures
and catch ghosts"¹²

5 Artista oro bildumagilea ere bada, artista adina bildumagile mota dago. Ez al dago bilduma eta bildumazaletasun ez-ikusizkoa, barru-barrukoa, artista orok ekoizten duen obran? Bilduma barrualdeari, barru-barrukoari dagokio. "Trapuketaria giza miseriaren irudi probokatzaileena da", idatzi zuen Walter Benjaminek. Trapuketaria objektua berreskuratzen du, eta zirkulaziotik, kontsumoaren xurgatze azkarretik babesten du.

Artista-diogenesak, artista-pilatzaileak, bildumagile aitortuak, beste batzuen kasuan senak hala direla dio. Jadanik aipatutako Eduardo Arroyo, Joan Fontcuberta, eta Rosemarie Trockeli, beste hauek gehitzen dizkiet, besteak beste: Paul Gauguin, Pablo Picasso, André Breton, Eugen Atget, Diego Rivera, Arman, Daniel Spoerri, Yayoi Kusama, Annette Messager, Claes Oldenburg, Joseph Cornell, James Ensor, Kiki Smith, James Castle, Andy Warhol, Kurt Schwitters, Joan Brossa, Francis Bacon, Antoni Tapies, Carlos Pazos, Martin Parr eta Miquel Barceló. Jakina da Rembrandt, Montaigne, Goethe, Victor Hugo, d'Annunzio, Nabokov, Ernst Jünger eta Walter Benjamin bildumagileak zirela, bai eta Joyce, Perec, Prévert, Whitman, Borges, Gerald Durrell eta Billy Wilder ere. Zerrenda amaigabea izan daiteke.

Eta pilatzeko grina hori ez zen jada sortuko artisten lantegi eta estudioetan bertan? Lantegia barne-espazioa da, artistaren digestio-aparatua. Artisten estudioen eta obren arteko paralelismoa Ángel Gonzálezek aztertu ditu *Pintar sin tener ni idea* liburuan. Bertan estudioak ausazko aurkikuntzen haztegitzat jotzen ditu. "Obra zirriborro izatera iritsi baino lehen ere badabil estudioko objektuen eta tresnen artean, lan-esparruko desordenen edo ordenen artean"¹³. Objektuak testuingurutik ateratzearen lehen estadioa, tokiz kanpo uztekoa, estudioan gertatzen da, eta horrek aukera ematen digu ausaz aurkitutako zorioneko aurkikuntza ustekabeak gerta daitezten.

6 Jakina da Freudek antzinako estatuak biltzen zituela, estatu grekoak, erromatarak eta egiptoarrak, eta liburu gehiago irakurria zituela arkeologiari buruz psikologiari buruz baino. Izan ere, esanahiak zitzaizkion erakargarriago objektuak beraiek eta objektuen presentzia opakua baino. Freuden iritziz, "harriak mintzo dira"¹⁴, harriak deskodetu beharreko objektuak dira, Rosseta harriak. Freud bildumagile baino irakurlea zen,

Lacan ez bezala, hura bildumazale samarra baitzen eta objektuen presentziari erreparatzen baitzion testuez harago. Harria, Lacanentzat, esanahia baino gehixeago da, esanahiari aurre egiten dion egiazko puska bat, mundua ordenatzen duen hizkuntzaren gaitasuna gainditzen duena.

7 Bildumagile izateko estilo ezberdinak daude. Picasso eta Duchamp, horra bi paradigma, bi modu, bildumak egiteko, edo bi era ezberdin objektuei erreparatu eta beha egiteko. Badira bilatzen duten bildumagileak eta aurkitzen duten bildumagileak. Picasso aurkitzen dutenen prototipoa da; izan ere, dena zaio baliagarri sortzen ari den objektu berri hori, zerbait erantsia duen, zerbait gehiago duen, objektu hori egiteko. Artelanak gehitu egiten du, bete egiten du edozein objektuk betetzen edo iristen ez duen toki hutsari falta zaiona.

Bestelakoa da Duchampen keinua: objektua atera egiten du bilgetitiki, supermerkatutiki, askatu egiten du bere ohiko erabileratik, gauzaez bihurtzen du gero beste erabilera bat, beste eginkizun bat emateko, ikusgai jartzen du, begi aurrean, begira diezaioagun.

Artista antibildumagileak ere badira, objektuak edo, hobeki esanda, objektuek irudikatzen duten betegarritasuna errefusatu egiten dutenak. "XX. mendeko artea bere jatorrian gehi-objektua eta ken-objektua zeinuen pean jarri bide da, edo dena-objektua eta ezin-objektu zeinuen pean".¹⁵ "Ezetzaren artistek" -ezerezaren pultsio negatiboak jota, edo Enrique Vila-Matas *Bartleby y compañía* liburuan definitu bezala Bartlebyren gaitzak jota- buru egiten diote objektuari. Bere jarrera, anorexian bezala, ezereza desiratzea da, objektua alde batera uztea, buru egitea objektuaren dirdirari, ezin aurkituzko objektua eta asebetegabetasuna aldarri egitea. Objektua ezereza da, ez-egitea, eta, hala ere, artea egiteari ez uztea. Ikustekorik gabe, esatekorik gabe.

Ezetzaren artisten zerrenda ere luzea eta heterogenea da: Marcel Duchamp, Kazimir Malevich, Yves Klein, Piero Manzoni, Andy Warhol, On Kawara, Ben Vautier, Chris Burden, Vito Acconci, Jochen Gerz, Lawrence Weiner, Stanley Brouwn, Bruce Nawman, Michel Asher, John Cage, Robert Barry, Arthur Cravan, Perejaume, Tony Matelli, Ignasi Aballí, Dora García, Gregor Schneider, Graham Gussin, Johnny Lydon, Andy Kaufman.

8 Galde egiten diot neure buruari Ángel Gonzálezekin batera: noiz hasi ziren, bada, gauzak guri buru egiten? "Noiz hasi zen desjabetze-prozesu beldurgarri hori?".¹⁶ Nola begiratu mundura eta, aldi berean, burua bueltatu eta begiak itxi? Nola maitatu objektuak eta beren irudia deuseztatu? Artxibategia eta museoa oroimenaren eraikinak dira, bertan gordetzen baitira hala denboraren trazak, hondakinak eta lorratzak nola kultur objektuak munduaren irudi gisara. "Denbora otzandu gauzen bildumaren bitartez".¹⁷ Monumentua begiradari eskainitako objektu iraunkorra dugu, non gure oroimena eta oroimen historikoa ezarri, haren esku utzi eta igortzen ditugun. "Denborak ere pintatzen du", dio Francisco de Goyak.

Bada, egun, halako obsesio bat oroimenarekin, uste badut ere artxibatzeke grina dela ezer baino gehiago. Oroimenak badu nolabaiteko atxikimendua norberaren eta gizartearen esperientziarekin. Erregistratzeko teknika digitalak artxibo-biltegi ezin konta ahalak sortzearen pean daude. "Hondoratu egiten gara oroimen-enpresaren pisuaren pean"¹⁸, dio Wajcmanek museoei, enkanteei eta objektuei buruz ari delarik. Gaur, kontrara, artxiboek ez du pisurik, immateriala da, zirkulatuzailea. Obra materialak eta haiekin batera artelanak pisurik gabeko artxibo digital baten irudiak bilakatzen dira. Egunero inauguratzen dira museo eta bilduma bertualak. Objektuak kontsumitzen dituen gogo biziak berak gordetzen ditu, ezer ere gal ez dadin. Gordetzea eta suntsitzea baliokide, betiere ulertuta gordetzea objektu materialak zein immaterialak ezkatatzeko modua ere badela. Artxibategietan, kultur objektuek bere tokia aurkitzen dute, edo are gehiago bere ez-tokia, non subjektuak ahanzturara eramaten diren, non subjektuei aztarnak eta oroimena erazten zaizkien. Oraina iragan bilakatzen da oraina izan baino lehen.

Artxibategiak ahanzturara garamatza, eta horren babesle diren erakundeen boterera. Nor ote dira oroimen digitalaren jabe berriak? Ez al da pentsatzekoa artxibo oroimendunek eramanen dituztela subjektuak ahanzturara? Zer ondorio ekarriko luke aurririk, hondakinik, objekturik gabeko ahanzturak? eta ahanztura erabatekoak? "Bilduma bat ez da objektuen edo agirien pilaketa hutsa, baizik eta elkar ezagutzeko eta mundua ulertzeko modu bat. Museo baten bilduma herrialde baten oroimen kolektiboa da", dio

Manuel Borja-Villelek.¹⁹ "Amnesia-arriskua daukagu", ondorioztatzen du museoak eta bildumak desagertzeko arriskua ikusita.

Oroimen digitalaren aroan kolokan dago objektuaren estatutua. Oroimen-biltegia den objektu espazioduna aldi baterako objektua bilakatzen da, oroimenik gabea, kontsumo-munduan jira eta bira etengabe dabilena, kontsumitzaileen begirada iheskorren pean, zeinek bistatik galtzen ari direnari bakarrik begiratzen dioten. Twit batean irakurtzen dut arteari beste modu batera begiratzen zaiola, gailuen bidez kontsumitzen dela, irudi digital gisa. Teknologizazioak eta digitalizazioak aldatu egiten dute hizkuntzen eta arte-objektuen materialtasunaren metabolismoa, bai eta horiek jasotzeko moduak ere. Obrak zentzumenez eta gorputzez jaso beharrean berehalako esperientzia batez jasotzen dira, non objektua disolbatu egiten baita aldi berean irudiaren harreran eta biltegitratze digitalean.

Performance-ekintzan ere objektua biluztu egiten da, edo, zehatzago esanda, kontsumitu, zirrimarratu, ezabatu egiten da. Eta objektuak uzten duen zulo horretan, artistak arima jartzen du, bere gorputza eta bere azala jartzen ditu, euskarri material gisa. Organismo bizidunaren eta munduaren artean muga egiten zuten irudia eta objektua aienatzen dira, hausten dira. Ekintza bera prozesu artistikoa bilakatzen da. Gorputzaren hondarrak, gorputz galkorra, diskurtsiboa, bere eskreszentziak eta bidean utzitako puskak objektu gisara agertzen dituzte.

Gaur egungo arte digitalean irudi digitalak, jatorri simbolikotik kanpo ekoiztutako irudi gisa, agerian uzten du objektuaren dislokazioa: irudirik gabeko materia eta materiarik gabeko irudia.

9 Ez al gara objektuen kulturaren amaierara eta kultur objektuenera iristen ari? Objektuaren estatutuan egun gertatzen ari diren aldaketek ondorioak dakarzkiete arteari eta artearen objektuari. Baita arte-jardunari zein ekoizpenari, museoei eta kultur oroimenari ere. "Gorantz goaz, geldiezin, azalekoaren sakontasun handienerantz", irakurtzen diot José Luis Cuerdari twitterren. Objektuaren igoera, egia esateko, bere erorikoa da.

Lehen fisikoak eta ukigaiak ziren gure objektuetako asko orain digitalak dira. Ohikoenak -musika, liburuak,

argazkiak, filmak...- ziberespazioan biltegitratzen ditugu gaur egun. Egia esanda, objektu horiek ez dira gureak, erabiltzearen truke ordaintzen dugu, erabiltzaileak gara eta ez dira gure heriotzatik harago biziko, ez dizkiegu gure ondorengoei oinordetzan lagako. Jabeak baino maizterrak gara, edukien, esperientzien eta emozioen maizterrak, edozein ordutan, edozein tokitan. Zerbitzuak objektua ordeztu du, sarbideak ondasunak ordeztu ditu: erabilera-, alokairu-, irakurketa- eta entzumen-zerbitzuak erosten ditugu. Gehiago baloratzen da gozamenera iristea jabetzan edukitzea baino. Sarbidea, zirkulazioa eta erabilera partekatua *gizarte-objektu* berri honen ezaugarriak dira. Facebook edo Twitter orainaldi hutsak dira. Ez dago apenas oroimenik idatzitakoari buruz, eta irauten duen arren, ia kontraesana da atzera egitea zerbaite berreskuratzeko. Bitartekoari orainaldia dagokio. Hartara, tresna berriak ez dira sortuak oroimena edo gomuta gordetzeko.

Hilerraren ordeze ere, museotik eta oroimenetik zuenaz bezainbatean, errausketa dugu orain, hilotza gorputzaren hondakin gisa desegiten duena. "Bizirik badirauzu norbaitek gogoan zaituelako da",²⁰ dio hildakoak gogoratzeko sortutako sare birtual baten esloganak. Presentzia, egun, digitala da, birtuala, eta egiazko munduan ezartzen doa, hura aldatzeko.

Ikuslearen hartze-mailan ere harreman sinbiotikoa dute arteak eta bildumazaletasunak. Eta ez al dago egun bildumazaletasuna nonahi? Eta ez al da halako bildumazaletasuna ezen jabetzearekin nolabait nahastean baita? Ez al dugu bildumagile eta "curators" gisara jokatzeko Internet datu-, informazio- eta irudi-biltegian, non "gustuko dut" edo "nire gogokoak" zeinuekin hautatu, eskaini, hartu eta markatu egiten dugun? Ez al ditugu uzten gure nahien lorratzak, gure adurren ibilbidea, zaletasun birtualen zirkuitu amaiezinean?

10 Bilduma bat metaketa hutsa izan ezean, bilduma orok ordena behar du, saiklapena. Topatu ahalko nuke bilduma esateko berezko hitzik, berezko modurik, erakusketarako hautatutako obra bakoitzean? Zerrenda, bana banaka aipatzea, bilketa, multzoa, metaketa, antologia, saila, erakusgaia, katalogoa, askotariko sorta, jolasa, bildumena, batuketa, nomina, samalda, aurkibidea, inbentarioa, letania, erregistroa, errola, direktorioa, konbinazioa, tropela, taldea, piloa, bilkura, konposatua, nahastea, mukurua, saski-naskia, taldekatzea, gida,

kontua, zenbaketa, kontaketa, kosmosa, konstelazioa, kit-a, katramila, biltegia, collagea, muntaia, artxiboa. Eta are gehiago, sabaia, izadi hila, bidaia koaderno, nahaspila, karta-sorta, liburutegia, mundu mapa, partitura, azoka, liburuxka, kartografia, lorategi botanikoa, animalarioa, bestiarioa, altxor ganbera, antikuaria, jostailu-denda, zabortegia, ataltze lekua, hiztegia. Eta abar.

Nire asmoa, ohartuta nago, ez da sailkatzea baizik eta obra bereziak eta ez-antzekoak erakustea, banan banan, eta bere elokuentzia aditzea. Nire asmoa ez da obrak ezein teoriaren barruan sartzea, hizkuntzara itzultzea, ezpada obraren opakotasuna, buru egiteko gaitasuna, erakustea. "Trapuak eta hondarrak ez ditut sailkatu nahi, justizia egin nahi diet", dio Walter Benjaminek.

Aurre egin nahi diot artelanaren gorpuztasunaren arazoari, noiz eta desmaterializatzeko itzulezinaren aroan. Artelanari buruzko teoria material bati eutsi nahi diot, irudi digitalean eta sare birtualak sortzen dituen harreman eta elkarreragin multzoan gertatzen diren xurgatze eta disolbatze prozesuei aurre egite aldera. Erakusketa begiratzeko gonbita da, ikusteko, antzemateko, sentitzeko obren eta objektuen intentsitate

asaldatzailea eta presentzia opakua. "Pentsatzeko objektu bat behar da. Pentsamendu-objektu bat, baina egiazkoa, sendoa, aldian behin tximinia gainean jar daitekeena. Objektuaren gainean bermatzea, harekiko konfiantza izatea, harekin otzan agertzea, hori da jarrera".²¹ Obra bertan dagoen makina da, mundua interpretatzen duen objektu pentsalaria.

Zer da egiatan begiratzeko? Kanpoko existentziaren alde egitea, gauzen kanpokotasunaren eta independentziaren zein objektu materialen kulturaren alde egitea. Bildumak egiteko nahiak horren berri ematen digu.

Muchas cosas
me lo dijeron todo.
No sólo me tocaron
o las tocó mi mano,
sino que acompañaron
de tal modo
mi existencia
que conmigo existieron
y fueron para mí tan existentes
que vivieron conmigo media vida
y morirán conmigo media muerte.²²

1 Umberto Eco, *El vértigo de las listas*. 2009

2 Javier Lacruz Navas, <http://javierlacruzes/html/pictura.html>

3 Gérard Wajcman, *Collection*, 1999
Wajcman idazlea, psikoanalista eta pentsalaria da, eta zorrotz aritu da hausnarrean kulturaren eta artearen xedea gogoetagai hartuta. *El objeto del siglo* (1998) liburua ere idatzi du. Lan honetan bere gogoeta argietako batzuei erreparatu diet.

4 Op. cit.

5 Santiago Alba Rico, *La ciudad intangible*. 2002

6 Santiago Alba Rico. <http://www.elecode lospasos.net/m/article-17355828.html>

7 Walter Benjamin, *Libro de los pasajes*. 1983

8 Joan Fontcuberta. http://cultura.elpais.com/cultura/2011/11/24/actualidad/1322089210_850215.html

9 <http://www.circulobellasartes.com/evento.php?s=exposiciones&id=138>

10 http://salonkritik.net/10-11/2012/09/la_exposicion_como_una_investi.php

11 Umberto Eco, *El vértigo de las listas*. 2009

12 <http://www.tranzitdisplaycz/en/node/438>

13 Ángel González, *Pintar sin tener ni idea*. 2007

14 Gérard Wajcman, *Collection*. 1999

15 Gérard Wajcman, *El objeto del siglo*. 1998

16 Ángel González, *El resto*. 2000

17 Baudrillard, *El Sistema de los objetos*. 1969

18 Gérard Wajcman, *El objeto del siglo*. 1998

19 http://cultura.elpais.com/cultura/2012/10/19/actualidad/1350670277_065108.html

20 <http://www.pervive.es/>

21 Gérard Wajcman, *El objeto del siglo*. 1998

22 Pablo Neruda, *Oda a las cosas*. 1954

